

Beasain BHI

Ekitaldi instituzionala - Bazkaria

Ekainaren 16an, larunbata, egin dira 50. Urteurrenaren azken ekitaldiak.

Lehenik, udaletxeko Batzar Aretoan, ekitaldi instituzionala burutu da. Bertan, **Aitor Aldasoro** alkateak, **Maite Alonso** Hezkuntza sailburuordeak eta **Josune Lopetegik** institutuko zuzendariak parte hartu dute.

Alkateak eta Sailburuordeak institutuak bere ibilbidean egin duen hezkuntza lana goraiatu dute eta lorpenik nabarmenenak azpimarratu dituzte: emaitza akademiko onak, Hezkuntza Sailaren ildo nagusien garapena...

Josune Lopetegik, berriz, institutuaren sorrera gogoratu eta 50. urteurrena ospatzeko egin diren jardueren errepasoa egin ondoren, urte hauetan guztietan, inguruko gizartearen beharrei erantzunez, aldaketa eta egokitzapen prozesu luzea eman dela aipatu du, bost ideia nagusi nabarmenduz:

- 1. Ikaslea helburu.** *Ikasle bakoitzaren eta ikasle guztien arrakasta handiena lortzea bilakatu da helburu nagusi: emaitzetan eta gaitasun orokorren garapenean.*
- 2. Hizkuntzen trataera.** *Gaztelania hizkuntza bakarra izatetik D eredura eta Eleaniztasunerako urratsa eman da..*
- 3. IKTen erabileran** *garapen ikusgarria eman da.*
- 4. Gizarte gai nagusiekiko sentiberatasuna.**
- 5. Nahasmendutik kudeaketa antolatura.** *Antolakuntza honen dokumentu nagusia **HEZKUNTZA PROIEKTUA** bilakatu da eta horren baitan sortzen da institutuaren kudeaketa sistema. Hiru helburu nagusi ditu: egiten diren jardueren koherentzia, sistematizazioa eta etengabeko hobekuntza.*

Asko egin da baina, bizi dugun errealitate aldakor honetan aukerarik hoberenak izateko, ezinbestekoa da etengabe egokitzapena eta horretarako institutua osatzen duen komunitate osoaren lankidetzeta eta kohesioa behar da.

*Institutuak, abiatu eta 50 urte geroago, proiektu sendoa osatzen du, une honetan 1000 ikasletik gora ditu eta 120 irakasle. Gu guztion ardurak guran konfiantza jarri duten familiei ahalik eta modu egokienean erantzutea, lehen aipatu bezala, **IKASLEA HELBURU** izanik; hau da, ikasleak eskola arrakastarik handiena lor dezan eta ahal dituen gaitasunak gara ditzan.*

Erronka, beraz, argia omen da: **beste 50 urte goierritarren zerbitzura.**

Ekitaldi instituzionala amaitu ondoren, lagunarteko bazkaria egin da; aspaldiko eta oraingo lagunekin egoteko eta gozatzeko une hunkigarriak eman dira.

Bazkal aurretik eta kafe garaian, **Maddi Aiestaran** eta **Iñaki Apalategi** bertsolari beasaindar bikainak izan ditugu lagun eta festari amaiera emateko **Guri5** musika talde alaiaren kontzertua izan dugu.